

ATAUNGO 1Go BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPEN BATZORDEAren bilera

EGUNA: 2019ko Irailak 10

BERTARATUAK:

- Eneko Amundarain (Jentilbaratza K.E)
 - Ibon Zabala (Joxemiel Barandiaren Eskola)
 - Xabier Altuna eta Saioa Aranburu (Otsoak Dantza Taldea)
 - Amets Etxaide (Gazteria Teknikaria)
 - Garazi Etxeberria; Nagore Bikuña eta Edurne Goikoetxea (Biboletak)
 - Hodei Goikoetxea eta Mikel Dorronsoro (Torto Gazte Asanblada)
 - Pili Eskisabel
 - Iratxe Tapia (EhBildu-ko Udal Taldeko kidea)
 - Irati Arratibel (Kulturarako eta Berdintasunerako Zinegotzia) (EHBildu)
 - Nerea Elias (Farapi Aholkularitza)
- * Xabier Barandiaranek (EAJko Zinegotzia) eta Ainara Gorostizuk (herritarra) ezin etorria adierazi dute.

GAI-ORDENA:

1. Berdintasun Planaren garapenaren egungo egoera ezagutu

Bileran parte hartu duten guztien aurkezpen erronda amaitu ostean, 2019rako adostutako Plangintza Operatiboaren¹ errepasso orokorra egin da. Errepassotik aipatzekoak:

1 Atxikitua helaraziko da bileraren aktarekin batera.

- Berdintasun Batzordea mantendu eta indartu: Erronka bat da Batzordean parte-hartzea iraunkortzea. Urtean zehar 4-5 bilera izaten dira eta gainontzeko koordinazioa posta elektronikoz egiten da. Gaurko bilerara bertaratutakoek jarraitzeko prestutasuna agertu dute.
- Joxemiel Barandiaren Eskolarekin Elkarlana: Ibon Zabala Ikasketaburua izan da bileran eta Eskolarekin koordinazioa abiatzeko lehen pausoak eman dira. Eskolatik Berdintasun gaietan egiten dutenaren berri izatea eta lanketak (ahal denean) modu koordinatuan egitea izango da helburua.
- Udaleko Web-gunean Berdintasun Plana: Kultur teknikariak aipatu du web-gunean badagoela Berdintasun Planerako atal berezi bat baina edukiak erreparatu behar dituela egunean jartzeko. Bestalde aipatu da ideia ona dela, Berdintasun Batzordearen bileren aktak (korreoz parte-hartzaileei bidaltzarekin batera) webgunean zintzilikatzea.
- Herriko Elkarte eta Eragileekin Berdintasuna zehar lerro gisa txertatzeko abiatutako lanaren jarraipena: Elkarte eta eragileek genero zeharkakotasunari buruzko trebakuntza jaso zuten urte hasieran. Honekin batera, Udalean aurkeztu beharreko diru-laguntza eskaera eta memorietan genero irizpideak txertatzeko gida txiki bat eman zitzaion. Aurkeztutako dokumentuen jarraipena egiteko ardura hartu zen Udaletik (Kultur Teknikaria eta Farapi), pendiente dagoen gai da.
- Gazteria teknikariarekin elkarlana: Urte honetan zehar gazteria teknikariak eta Farapiko Aholkulariak 3 bilera izan dituzte gazte lokalean genero ikuspegia txertatzeko.

2. Ondorengo pausoak zehaztu

Parte-hartzaileekin horrela adostuta, aurrerantzean Berdintasun Batzordearen bilerak asteartetan 19:30etan jarriko direla erabaki da. Aurrez aipatu moduan eragile guztiek hartu dute Batzordean parte-hartzeko konpromisoa.

3. Azaroak 25 prestaketa

Azaroak 25era prestaketa lanekin hasi gara. Ondorengoak adostu dira:

- Adierazpen bat prestatuko da Farapitik eta atxikimendu kanpaina egingo da orain arte bezala. (Adierazpenaren zirriborroa urri erdi alderako egongo da, Eskolan Kontseiluaren onarpena izateko aukera egon dadin).

- Adierazpenaren edukietan “adin-txikikoen artean erasotzaile kopurua” igo izanak sortutako kezka txertatzea erabaki da.
- Adierazpena zabaltzeko, bandoaz gain, beste kanal batzuk erabiltzea adostu da. Udalaren Sare Sozialak etab. Modu honetara herriko eragileek ere hain sare propioen bitartez egin dezakete zabalpena. Pegatinekin, txapekin etab. errekin gaztetxoaren artean daukaten arrakasta ere baliatu liteke zabalpenerako.
- Ataunen emakumeek jasaten dituzten “indarkerien bilduma” bat egitea adostu da. Horretarako urri bukaeran lan-saio bat egingo da (emakume eta gizonekin), indarkeriaren inguruan (indarkeria motak ezberdinak zer diren azaldu eta testigantzak jasoko dira). Jasotako testigantza kopuruaren arabera, Azaroak 25era arte (atzerako kontaketa batean) egunero-egunero testigantza bat zabalduko da Udalaren Sare Sozialen bidez.

Sare Sozialik erabiltzen ez duten emakumeen testigantzak jasoko herrian kutxak jartzea adostu da.

Azaroaren 25eko kontzentrazioaren testigantza ezberdinak irakurriko dira. Otsoak Dantza taldeak eta Jentilbaratzatik kontzentrazioan dantza/ikuskitun txiki bat egiteko aukera landuko dute elkartearen baitan.

- Azaroak 25aren inguruan egingo diren ekimen ezberdinekin agenda bateratua egitea adosten da. Eskolak, Biboletak eta Gazte Asanbladak egingo dutena jasoko da.

4. Bileraren balorazio erronda.

Bilera baloratzeko hitz bat esateko eskatu zaie parte-hartzaileei. Ondorengo zerrenda osatu da: Produktiboa, lehenengoa, jendetsua, parte-hartzailea, berdintasunezkoa, produktiboa, eraginkorra, ilusiozkoa, koloretsua, motibagarria, indartsua.

Hartutako konpromisoak:

Farapi:

- Bilerako akta bidali
- Azaroak 25 Adierazpena idatzi
- Azaroak 25 Agenda bateratuaren jarraipena egin

Biboletak:

-Azaroak 25erako ekintza posibleak zehaztu

Gazte Asanblada:

-Azaroak 25erako ekintza posibleak zehaztu

Otsoak Dantza Taldea:

- Konzentrazioan dantza/ikuskizun txiki bat egiteko aukera aztertu elkartearen

Jentilbaratza:

- Konzentrazioan dantza/ikuskizun txiki bat egiteko aukera aztertu elkartearen

Joxemiel Barandiaran Herri Eskola:

- Azaroak 25erako adostutako ekintzak jakinarazi